



## GUIA PARA UN USO NO SEXISTA DEL CASTELLANO

*“-Señora maestra, ¿Cómo se forma el femenino?  
-Partiendo del masculino: la “-o” final se sustituye por la “-a”.  
-Señora maestra, ¿y el masculino cómo se forma?  
-El masculino no se forma, existe.”  
(Anécdota escolar)*

## Conceptos clave a tener en cuenta sobre uso no sexista del lenguaje<sup>1</sup>:

- **La lengua** constituye, como mínimo, el reflejo de la realidad de la sociedad que la utiliza. Así como la sociedad es racista, clasista, heterosexista, la lengua también lo es. Y por supuesto recoge las desigualdades derivadas de la situación de discriminación de las mujeres y refleja todo el sexismo y androcentrismo existentes.
- **El lenguaje** no es un hecho biológico y natural sino una adquisición cultural y todo lo que es cultura es añadido y, por tanto, modificable por la voluntad de las personas, podemos alterarlo ya que **al retocar la lengua se retoca la mentalidad** y retocando la mentalidad se retoca la conducta.
- **El sexismo** es la asignación de valores, capacidades y roles diferentes a hombres y mujeres, exclusivamente en función de su sexo, desvalorizando todo lo que hacen las mujeres frente a **lo que hacen los hombres, que es lo que está bien**, “lo que tiene importancia”.
- **El androcentrismo** es el enfoque desde una única perspectiva: la del sexo masculino. Supone considerar a **los hombres como el centro y la medida** de todas las cosas. En una sociedad androcéntrica se toma el masculino como modelo que se debe imitar. Los varones son considerados el sujeto de referencia y las mujeres como seres dependientes y subordinados a ellos.
- **El sexismo y el androcentrismo** presentes en el uso que hacemos de la lengua sólo tendrán una solución definitiva cuando cambien las estructuras sociales que producen y potencian esta utilización. Pero, sin embargo, **se puede incidir paralelamente en la realidad y en la lengua** y establecer una influencia entre ambas.
- La aportación de mujeres y hombres tiene la misma importancia para el mantenimiento de la sociedad por lo **que nuestra manera de hablar debe reflejar la aportación de las mujeres** y concederles el mismo grado de protagonismo sin relegarlas a una posición secundaria y subordinada a los hombres.

---

<sup>1</sup> Extraído y adaptado a partir de la guía *Porque las palabras no se las lleva el viento*. Teresa Meana Suárez, 2001. La anécdota escolar de la portada también ha sido extraída de esta guía.

## CÓMO HACER UN USO NO SEXISTA DEL CASTELLANO<sup>2</sup>

1.- EVITA términos que ignoren a las mujeres, NOMBRALAS donde aparezcan y NO ESCONDAS sus experiencias o aportaciones. →¿CÓMO?

- Usando el femenino siempre que el castellano lo permita en cargos, profesiones, títulos:

médica, viceconsejera, empresaria, fontanera, jueza, técnica, primera ministra, magistrada, presidenta...

- No usando el masculino como genérico. Existen múltiples recursos, citamos 10 maneras de evitarlo:

1. Para ello se pueden usar sustantivos colectivos no sexuados como “personal” o “personas”:

*Los artistas* → la comunidad de artistas<sup>3</sup>

*Los políticos* → la clase política

*Los periodistas* → la profesión periodística

*Los lectores* → el público lector

*Los expertos* → las personas expertas/ el personal experto

*Los funcionarios* → el funcionariado

2. Usando nombres abstractos como la adolescencia, la ciudadanía, la familia, la abogacía, magistratura, electorado, descendencia, familia, delegación, magistratura...

*vascos afectados* → población/ciudadanía vasca afectada;

*profesores, alumnos y padres asistirán...* → profesorado, alumnado y familias asistirán

3. Usando sustantivos metonímicos como la presidencia, la gerencia, la dirección, la coordinación, la asesoría, la autoría, la jefatura, la medicina, el empleo, la emigración, el deporte:

*los consejeros vascos* → la Cámara Vasca, el Ejecutivo Vasco,...

4. No usando “hombre” como sinónimo de “humanidad” y evitando el salto semántico que identifica a las mujeres como inferiores o como propiedad de los hombres:

*las edades del hombre* → las edades de la humanidad/ del ser humano/ de las personas/ de mujeres y hombres...

<sup>2</sup> Extraído y adaptado a partir de la *Guía para la revisión del lenguaje desde la perspectiva de género*, realizada por Mercedes Bengoetxea. Proyecto Parekatuz, Diputación de Bizkaia, 2003.

<sup>3</sup> En cursiva y color rojo se marcan las expresiones a evitar, en verde las expresiones propuestas.

**Los colonos americanos trajeron a sus mujeres e hijos al Nuevo Mundo → Familias de colonos americanos vinieron al Nuevo Mundo**

5. Sustituyendo gentilicios por el lugar de origen o un colectivo+gentilicio

**los vascos → el pueblo vasco/ la población vasca/la gente del País Vasco...**

**los asistentes, alaveses en su mayoría → el público asistente, natural de/ proveniente de/ habitante de...**

6. Recurriendo a convenciones administrativas:

**Los demandados → la parte demandada**

7. Cambiando la sintaxis de la oración: verbos impersonales, o verbos en 2ª persona singular o 1ª del plural, o usando infinitivos, gerundios o participios...

**Los vascos podrán desgravar en 2012... → En Euskadi se podrá desgravar/ puedes desgravar/ usted podrá desgravar/ podremos desgravar...**

8. Utilizando dobles formas, masculina y femenina, o viceversa. Cuando se habla de colectivos, grupos o plurales formados por mujeres y hombres se recomienda no usar sólo la forma masculina, sino ambas. No es necesario usar la forma femenina y masculina de todos los artículos o pronombres, es más, en muchos casos, se puede prescindir de ellos sin perder contenido, se pueden alternar, poner el femenino primero y luego añadir el masculino...:

**Los gestores contables, los asesores de cuentas y los expertos en marketing acudieron ... → Las gestoras contables, asesores de cuentas y expertas en marketing acudieron...**

**Estos directores aconsejan... → estas directoras y directores aconsejan...**

9. Utilizando la barra, el guión o la arroba en textos administrativos como formularios, contratos, documentos oficiales, cartas, impresos, etc para marcar las abreviaturas del femenino y el masculino (a-o, o/a)<sup>4</sup>. En el resto de textos es preferible usar los recursos citados anteriormente.

La arroba (@), aunque tiene gran aceptación entre la juventud y ciertos sectores como la publicidad, telecomunicaciones por su capacidad para llamar la atención sobre la cuestión de género no se recomienda, dada su dificultad de lectura y transmisión oral, en textos administrativos ni en otros textos periodísticos, discursos...etc

**Muy señor mío → Muy señor/a Mío/a, Muy señor-a Mío-a**

**El demandante → La/el demandante**

---

<sup>4</sup> Según afirma Mercedes Bengoetxea, en un principio la barra y el guión fueron necesarios para llamar la atención sobre la discriminación lingüística de la mujer, pero hoy día ha dejado de considerarse ridículo, se utiliza con asiduidad y está aceptado socialmente.

**Buscamos vendedores → Buscamos vendedor@s**

10. Evitando pronombres relativos y personales masculinos, y los pronombres masculinos falsamente genéricos.

**El que, los que, el cual, los cuales → quien, quienes, que**

**Uno → alguien, cualquiera, la persona, una persona, el ser humano...**

**Los demás → el resto, las demás personas, las y los restantes...**

**Ambos → una y otro, él y ella...**

**Los mencionados profesionales → tales profesionales**

**Todos fueron a votar → todo el mundo, ellas y ellos, la totalidad de, nadie dejó de votar...**

**2.- NO DESIGNES a las mujeres como personas dependientes de los hombres o subordinadas a su voluntad . →¿CÓMO?**

- No citarlas como ajenas o externas al grupo ni como propiedad de los hombres:  
**Los emigrantes traen a sus mujeres → las personas que emigran reagrupan a sus familias...**
- No añadiendo la palabra mujer o femenina innecesariamente<sup>5</sup>:  
**Las mujeres productoras, mujeres empresarias, las abogadas femeninas, mujer magistrada → productoras, empresarias, las abogadas, magistrada, ...**
- Alternando el orden de precedencia incluso en frases hechas:  
**Consejeras y consejeros, funcionarias y funcionarios, subvencionadas y subvencionados,...**
- Tratando simétricamente a mujeres y hombres en la vida social, política, cultural...:  
**Señor/Señorita → Señor/ Señora;**  
**Domingo y Ainhoa Arteta → Plácido Domingo y Ainhoa Arteta.**  
**Cada vez más hombres permiten a su mujer trabajar → Cada vez más mujeres deciden trabajar fuera de casa.**

<sup>5</sup> La regla de inversión es un buen truco para darnos cuenta: ¿diríamos un magistrado hombre, un abogado masculino...?

**3.- EVITA estereotipos sobre las mujeres –débil, pasiva, inconsistente, arpía, mandona- o primar el aspecto físico. EVITA nombrarlas sólo por su papel familiar o por profesiones tradicionales femeninas. EVITA denigrar, humillar o frivolar a las mujeres, menospreciarlas o tratarlas como objetos. →¿CÓMO?**

- En primer lugar, preguntándote ¿Si fuera un hombre, lo expresaría de la misma manera?
- Destacando el papel activo de las mujeres frente al pasivo:  
*El consejero inauguró acompañado por la alcaldesa de...* → **El consejero y la alcaldesa inauguraron**  
*La presidenta será probablemente renovada en su puesto* → **La presidenta ha decidido presentarse a la reelección....**
- Nombrándolas en otras profesiones menos feminizadas:  
*Médicos y enfermeras, políticos y limpiadoras, administrativas y abogados, secretarias y jefes...* → **Enfermeros y médicas, limpiadores y políticas, administrativos y abogadas, secretarios y jefas...**
- Destacando otras cualidades y no su aspecto físico:  
*La guapa atleta vasca ganó la medalla de oro* → **La excelente atleta vasca ganó la medalla de oro**
- Destacando otras cualidades como persona y no sólo su papel familiar:  
*Abuela gana premio Euskadi* → **Escritora reconocida/anciana escritora... gana premio Euskadi**

### **MATERIALES UTILIZADOS:**

- *Guía para la revisión del lenguaje desde la perspectiva de género*. Mercedes Bengoetxea, 2003, Proyecto Parekatuz. Dip. de Bizkaia.
- *Porque las palabras no se las lleva el viento*. Teresa Meana Suárez. Ayto. de Quart de Poblet, Valencia, 2001

### **OTROS RECURSOS:**

En la página web de Emakunde se encuentran los siguientes documentos:

- ⇒ *Guía de lenguaje para el ámbito de la empresa y el empleo*– Emakunde, 2011
- ⇒ *Guía de lenguaje para el ámbito del deporte* – Emakunde, 2009
- ⇒ *Guía de lenguaje para el ámbito de la salud* – Emakunde, 2009
- ⇒ *Guía de lenguaje para el ámbito educativo* – Emakunde, 2008 (bilingüe)
- ⇒ *Perspectiva de género en la comunicación e imagen corporativa* – Emakunde y Comunidad Europea/Fondo Social Europeo, 2004
- ⇒ *El lenguaje más que palabras* – Emakunde, 1988 (bilingüe)

Enlace para descarga: [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/pub\\_guias/es\\_emakunde/guias\\_es.html](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/es/contenidos/informacion/pub_guias/es_emakunde/guias_es.html)

Existen recursos y herramientas de corrección de textos o páginas web en castellano, como las que se reseñan en este *Recopilatorio de Recursos Web sobre lenguaje no sexista*. Son herramientas que se pueden descargar en el ordenador y facilitan la labor de corrección de textos y webs.

Enlace para descarga: [http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/es/contenidos/informacion/igualdad\\_otras\\_guias/es\\_guias/adjuntos/Recopilatorio\\_de\\_recursos\\_web\\_sobre\\_lenguaje\\_no\\_sexista.pdf](http://www.berdintasuna.ehu.es/p234-content/es/contenidos/informacion/igualdad_otras_guias/es_guias/adjuntos/Recopilatorio_de_recursos_web_sobre_lenguaje_no_sexista.pdf)

**EUSKARAREN ERABILERA**  
**EZ SEXISTAREN GIDA**



## Hizkuntzaren erabilera ez sexistarako kontuan hartu beharreko oinarritzko kontzeptuak<sup>6</sup>:

- Erabiltzen dugun **hizkuntzak**, gutxien-gutxienez gure gizartea islatu ohi du. Gizartea arrazista, klasista edo heterosexista bada, hizkuntza ere halakoxea izaten da. Eta, jakina, emakumeenganako diskriminazioak eragindako desberdintasun guztiak bildu eta sexismo eta androzentrismo guztia ere islatzen du hizkuntzak.
- **Hizkuntza** ez da egintza biologiko eta berezkoa, kulturaz jasotzen dugun zerbait baizik, eta kulturaz jasotako guztia erantsitakoa izaten da. Hortaz, jendearen borondatearen arabera alda daiteke. Aldaketak egin ditzakegu, **hizkuntzari ukitu berriak emanez pentsaerari ere ukitu berriak ematen** baitzaizkio eta pentsaera ukituz jokabidea ere ukitzen baita.
- Hauxe da **sexismoa**: sexuari bakarrik erreparatuta gizonari eta emakumeei balio, gaitasun eta rol desberdinak ezartzea eta **gizonek egiten dutenarekin alderatuta (haiek egiten dutena da ongi dagoena**, “garrantzia duena”) emakumeek egiten duten guztiari balioa kentzea.
- **Andozentrismoa**, gauza guztiei ikuspegi bakarretik begiratzea da: gizonetzkoen ikuspegitik. **Gizonak** gauza guztien **ardatz eta neurritzat** hartzea esan nahi du horrek. Gizarte androzentrikoetan, gizonetzkoa hartzen da imitatu beharreko eredutzat. Gizonak izaten dira erreferentziatzko subjektuak eta emakumeak, berriz, haien agindupeko eta mendeko izakiak.
- Hizkuntzaren erabileran azaltzen diren **sexismoa eta androzentrismoa** behin betiko desagertzeko, erabilera hori sorrarazten eta sustatzen duten gizarte-egiturak aldatu behar dira. Baina, bitartean, **errealitatean eta hizkuntzan aldi berean esku hartuz**, bi horien arteko elkar eragina sorrarazi daiteke.
- Gizarteari eusteko, garrantzi berbereko ekarpena egiten dute gizonak eta emakumeek eta, hortaz, **gure hitz egiteko erak emakumeen ekarpena islatu behar du** eta emakumeei protagonismo-maila berbera eman behar zaie, bigarren mailan eta gizonen mende utzi gabe.

<sup>6</sup> Gida honetatik atera, egokitu eta itzulia: *Porque las palabras no se las lleva el viento*. Teresa Meana Suárez, 2001

## EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTAREN GIDA<sup>7</sup>

### 1. HITANOA ONGI ERABILI

Hitanoa erabiltzeak eskatzen du hiztunak aditzean marka desberdina uztea solaskidearen generoaren arabera: “erretzeari utzi iezaion!” (emakume bati, *noka*) eta “erretzeari utzi iezaio!” (gizon bati, *toka*).

Solaskidea ez denean pertsona bakarra edo genero bakar batek osatutako taldea, desegokia da atzizki maskulinoak erabiltzea. Alde batetik, “zu” tratamendua erabiltzea dago. Baina beste estrategia batzuk ere erabili daitezke: inperatiboan, kasu, ez da ezinbestekoa aditz laguntzailea jartzea.

***Ekar ezak hire proposamena* → *Ekarri hire / Ekar ezazu zure proposamena***

### 2. GIZONA ERABILI ESPEZIFIKO MODUAN

“Gizona” hitza erabili da euskaran bai gizonezkoak bakarrik bai gizonezkoak eta emakumezkoak izendatzeko. Baina “pertsona arra = gizakia” eragiketa saihesteko, “gizona” zentzu espezifikoa (pertsona arra izendatzeko) soilik erabiltzeko gomendatzen dugu.

***Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten gizonak? Non daude herri honek behar dituen politikariak?* → *Non daude ideia handiak eta sakonak dituzten pertsonak / gizakiak? Non daude herri honek behar dituen politikariak?***

Bestalde, hainbat hitz elkartu daitezke “gizon” osagaiarekin: *lege-gizona, enpresa-gizona, industria-gizona, kultur gizona, elizgizona, plazagizona, itsasgizona...* Hitz konposatu hauek erreferentzia egiten badiote talde anitz bati edo ezagutu gabeko generoko pertsona bati, “gizon” osagaia aldatu beharko dugu, “-ari” atzizkia, “langile”, “pertsona” etab. erabiliz: ***legelaria, enpresaria, industrialaria, kultur-pertsona, eliz-pertsona, plaza-pertsona, itsas-langilea...***

### 3. “GIZ”- ERROAREN ERABILERA GENERIKOA

Gai eztabaidatua izan da “giz”- erroa modu generikoan erabiltzea egokia ote den eta bi jarrera nagusitu dira: bat, “giz”- erroaren erabilpen generikoa arbuizatzea erro hori “gizona” hitzean ere badagoelako;

<sup>7</sup> Amelia Barquínek egindako moldaketa bere *Euskararen erabilera ez sexistak*. Emakunde. Gasteiz, 2008ko gidan onarrituta.

bestea, erabiltzearen aldekoa, hiztunek hitzen etimologiaren eta bilakaeraren kontzientziarik ez dutela argudiatuta.

Lehenengo jarreraren jarraitzaileek hainbat hitz arbuiatzen dituzte: *gizakia, gizartea, gizadia, gizabidea, gizabanakoa, gizataldea, gizatiarra, gizatasuna...* (*pertsona, jendartea* etab. erabiliz). Bigarren jarreraren erabiltzaileek, berriz, ez dute hitz horietan arazorik ikusten.

Edozein modutan ere, egungo “hizkuntza ez sexistarako gida” ugarik “gizakia” proposatzen dute generikoa adierazteko. “**Gizakia**” zentzu generikoan erabiltzeak dakar, noski, zentzu espezifikoan inoiz ez erabiltzea. Horretarako “gizona” dago.

#### 4. GENEROA DAUKATEN IZENEN PLURALA EDO GENERIKOA

Generoa daukaten izenekin (*alaba, semea, aita, ama, erregina...*) plurala erabiltzean edo izendatutako pertsonaren generoa ez dakigunean, femenino eta maskulinoaren elkartea erabili behar da eta ez soilik maskulinoa: **seme-alabak, neska-mutilak, andre-gizonak, jaun-andreak...**

**Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara → Guztiok neba-arrebak gara**

#### 5. “-SA” BUKAERAKO FEMENINOAK

Zubereran “-sa” atzizkia izen femeninoak osatzeko erabiltzen da. Atzizkia daramaten hitz batzuk, bestalde, berriak dira edo maileguak: *alkatesa, aktorea, idazlesa, bertsolarisa, idazkarisa, langilea...* Euskarak ez du zertan holako femeninoak sortu, dauden izenak ez baitira ez maskulinoa ez femeninoa: *alkatea, aktorea* edo *idazlea* dira, berez, generorik gabeko izenak.

**Edurne Perez alkatesak museo berria bisitatu zuen → Edurne Perez alkateak / alkate andreak museo berria bisitatu zuen**

#### 6. PREMIAZKOAK EZ DIREN ESTRATEGIAK

Genero gramatikala daukaten hizkuntzek hainbat estrategia erabiltzen dituzte maskulino generikoa saihesteko (adibidez gaztelaniaz: *los profesores → el profesorado*). Zuzentasunaren bila, euskal hiztun batzuek ere estrategia horiek baliatzen dituzte, baina euskaraz ez dira beharrezkoak maskulino generikorik ez dagoelako.

**Bosgarren mailako irakasleriak txango bat prestatu du datorren larunbaterako → Bosgarren mailako irakasleek / maisu-maistrek txango bat prestatu dute datorren larunbaterako**

## 7. ASIMETRIA EKIDITEA

Gogoratu hitz batzuek ez direla modu berean erabiltzen, edo ñabarduna desberdinak dauzkatela, emakumeei eta gizonei aplikatzen zaizkienean.

-**Gizon portatzea** esapideak “ausarta izatea” esan nahi du eta ez dauka baliokide femeninorik: **Etorri hona, gizona bazara → Etorri hona, ausarta bazara**

-**Emakumea, neska, atsoa...** erabiltzen dira irain moduan gizonei eta mutilei aplikatuta: **Ez daukazue potrorik, ala? Zer zarete zuek, neska batzuk?** Erabilpen hori desegokia da, jakina.

-Kontuz hitz batzuen erabilerarekin. Hainbat hitz askoz gehiago erabiltzen dira emakumeak kalifikatzeko gizonak kalifikatzeko baino: **txolina, txatxala, pinpirina, panpoxa, kaskarina, pertxenta...** Bestalde, “mari-” osagaia erabiltzen da emakumezkoiei erdeinuz izendatzeko: **mari-matraka, mari-apain, mari-maistra...**

-**Andereño** tratamenduak ezkongabearen egoera adierazten du eta ez dauka baliokide maskulinorik; ez da, beraz, erabili behar. Egokia: **Urrutia andrea eta Perez jauna** (ez **Urrutia andereñoa**).

## 8. JAUZI SEMANTIKOA

Batzuetan termino bat erabiltzen da generikoa (emakume eta gizonentzako) dela ulertaraziz, eta gero, momentu jakin batean, aditzera ematen da termino hori ez zela benetan orokorra, baizik eta maskulinoa soilik.

**Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, neskekin ligatzen saiatu... → Gazteen aisialdia errutina hutsa da: telebista ikusi, tragoak hartzera joan, beste gazte batzuekin ligatzen saiatu...**

## 9. ANDROZENTRISMOA

Adierazpen batzuetan ulertzen da gizona munduaren ardatza eta neurria dela. Izan ere, batzuetan badirudi mundua gizonek bakarrik osatzen dutela:

**Frantziako iraultzaren ondorioz sufragio unibertsala ezarri zen → Frantziar iraultzaren ondorioz gizon guztientzako sufragioa ezarri zen** (kontuan hartzeko emakumeak ere bazeudela Frantzian eta ez zituztela eskubide horiek lortu une horretan).

## 10. ASIMETRIA MEZUETAN ETA TRATAERAN

Generoei egozten zaizkien rolen eta ezaugarrien bereizketa presente dago uneoro. Emakumeak lotzen dira estetikarekin eta izaera pasiboarekin, etxea eta familiaren zaintzarekin. Gizonari adimena eta indarra dagozkio, kalea eta mundu publikoa. Jarduerekin lotzen dira batez ere gizonak.

**Angelina Jolie-k, beti bezain eder eta elegante, eta Robert de Niro errekonozituak sari bana jaso zituzten ekitaldian → Angelina Jolie eta Robert de Niro aktore errekonozituek sari bana jaso zituzten ekitaldian**

Bestalde gizonak izendatzeko “gizon” eta “jauna” hitzak erabiltzen dira eta horien ondoan “neska” hitza erabiltzen da emakumeak izendatzeko edo, besterik gabe, haien ponte izena (txikigarria eta guzti). Trataera horren bidez emakumeak adingabeak diren irudia transmititzen da.

**Garmendia jaunak eta Estitxuk aurkeztu dute txostena → Garmendia jaunak eta Díaz de Alda andreak aurkeztu dute txostena**

## 11. SIMETRIAREN ARAUA

Mezuen bidez transmititzen den sexismoari erreparatzeko, estrategia erraz bat dago kasu askotan ondo funtzionatzen duena: simetriaren araua. Susmagarria den hitza edo esaldia beste generoari aplikatu diezaiozun ea egokia iruditzen zaigun.

Ziur aski desegokia irudituko zaigu:

**Robert de Nirok, beti bezain eder eta elegante, eta Angelina Jolie errekonozituak sari bana jaso zituzten ekitaldian**

Boleibol partida gizonak jokatu badute, albisteak ez luke izenburu hau izango:

**Gorputz ederrak hondartzan**

Argazki baten oinean, ez genuke esaldi hau aurkituko:

**Jendetza bildu zen inaugurazioan. Gizonak, dotore jantzita [...]**

Halaber, nekez aurkituko genituzke honako esaldi hauek:

**Díaz de Alda andreak eta Joseluk aurkeztu dute txostena**

Horretaz konturatzea nahikoa izan daiteke pertsonen trataera desegokia zuzentzeko.

## **ERABILITAKO MATERIALAK**

*Euskararen erabilera ez sexista. Gidaliburua.* Amelia Barquín, Emakunde, Gasteiz, 2008.

## **BESTE BALIABIDEAK**

*Hezkuntzan erabiltzeko hizkuntza-jarraibideak // Guía de lenguaje para el ámbito educativo – Emakunde, 2008 (elebiduna)*

*Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago// El lenguaje más que palabras- Emakunde, 1988 (elebiduna)*

⇒ Jaisteko esteka: [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/eu/contenidos/informacion/pub\\_guias/eu\\_emakunde/guias\\_eu.html](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/eu/contenidos/informacion/pub_guias/eu_emakunde/guias_eu.html)

Gainera, Emakundek web-etik euskara-zuzentzailea jaisteko aukera ematen du.

⇒ Jaisteko esteka: [http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/eu/contenidos/informacion/pub\\_recursos/eu\\_emakunde/recursos\\_eu.html](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-publicac/eu/contenidos/informacion/pub_recursos/eu_emakunde/recursos_eu.html)